
"AMAL"
.EVSKATZA.
RABINDRANATH TAGORE
EVSKATZA.E.A

Euskaltzaleak'en idaztiak

ANTZERTIA

Bost-Urtian
Alzaga'tar Toribi.

Ostegun-Gizena
Labayen'dar Andoni.

Sorgiñak
Barbier - Lekuona ' tar Imanol.

Egiazko Jainkoa.—X.

«Amal»
Rabindranath Tagore.

OLERTIA

Eusko Olerkiak
I.—Eŕenderi'ko olerti-gudua. 1930.

Eusko Olerkiak
II.—Tolosa'ko olerti-gudua. 1931.

Eusko Olerkiak
III.—Ernani'ko Olerti-gudua. 1932.

Eusko Olerkiak
IV.—Uŕetxua'ko oler-ti-gudua. 1933.
(Argitaratzeko).

EUSKAL EKINTZA

La Muerte del Euskera
Aitzol'dar J.

Lucha de idiomas
El problema escolar bilingüe en Euzkadi.

Itz - Lauz.
Lizardi'tar Xabier.

N. 10.195
R-4523

A.J.V.
3021

INSTITUCIÓN SARGADELENSE
OBRA SOCIAL
Caja de Ahorros de Vitoria

AMAL

LAMA

ANTZERTI-SAÌA

I

«AMAL»

Rabindranath Tagore

SABIAGAK euskeratua

1934

DONOSTIA

EUSKALTZALEAK

ANTZERTI-SAIA

I

«AMAL»

Rabindranath Tagore

ITSASOAK euskaratua

1934

DONOSTIA

EUSKALTZALEAK

Eusko elertia indartzeaŕen lan beŕiari lotzen gera. Ale-gia, olerti idaztiak argitaratzen ditugun eran antzerti liburutxoak zabaltzea, oraingoan, erabaki degula.

Gaurko idaztitxoa argitaratzea ez da guretzat bide beŕi uŕatzea. Aldez auŕetik «Bost Urtian», «Ostegun gizena», «Sorgiñak», eta «Egiazko Jainkoa» iraŕiak ditugu.

Bai, ordea, gure arloa edertu, txukundu eta apaintzea. Gure antzerti idaztitxoak neuŕi batekoak, tankera berdiñekoak izango zaizkizu, irakurle. Eta, deritzaigunez, baita gogoak ere.

Ona, era beŕiko, leeneskaintza: Rabindranath Tagore deritzan inditar antzezlari ospetsuaren «Amal», Sabiaga idazle yayoak euskeraldua. Antzezlari trebeenak sortutakoak, euskeraldutakoan, emekiemeki argitaratzekoak gaituzu. ¡Jaungoikoa lagun, noski!

EUSKALTZALEAK

Donostia'n 1934'ko-ilbeltzaren 23'an.

BANAKETA:

Madhav.

Amal, **Madhav'en semetzakoa.**

Sudha, **neskato lore-saltzaĪea.**

Sendalaria.

Gaztazalea.

Uritzaiña.

Agurea.

Nagusia **(etxadiko), suartzaŕa.**

Mandataria (Eŕegearen).

Eŕege-Sendalaria.

Etxadiko Mutilkoak.

LENENGO EKITALDIA

(Madhav'en etxean)

LENENGO AGEŔALDIA

MADHAV eta SENDALARIA

MADHAV. ....Ez dakit au zer dan! Ori etoŕi baiño len guzia berdin zitzaidan, eta nere naitara bizi nintzan! Bañan ori etoŕi dan ezkero, Jainkoak daki nola, bere maitetasunak bete dun nere biotza. Nere etxea ez da etxe izango ori joaten bada... *(Sendalariari)* Uste al dezu...?

SENDALARIA. Jainkoak bizitzea nai badu, urte asko eta askoz biziko da; bañan liburuak diotenez, nik uste....

MADHAV. Ai, ene Jainkoa! zer...!

SENDALARIA. Garbi asko diote liburuak: «Beazuneria, dardareria, otzeria eta ezuŕeria, guziak berdin asten dira....»

MADHAV. Utzi itzatzu, gizona, liburuak alde batera! Oŕenbeste gauzakin ni gero ta geiago arazotu besterik ez dezu egiten. Zer egin daiteken esatea da nik nai dedana....

SENDALARIA. *(Suŕautsa artuaz)* Bai bada; eriak ardura aundia bear du....

MADHAV. Bai, bai, badakit.... Bañan esan zaidazu zer egin bear dedan....

SENDALARIA. Esan dizut lenago ere: iñalaz ere etzaiozu etxetik ateratzen utzi.

MADHAV. Aur gaxoa! Egun guzian itxian eduki bear.... Geiagizkoa da....

SENDALARIA. Ez da bada beste biderik. Eguzkiak eta udaz-keneko ezatasunak gaitz aundia egin dezaiokee; liburuak diotenez bada: «Arnas-neke, zorabio, zain-dardara, eta miñ ori aldietan...»

MADHAV. Bañan, gizona, utzi zaidazu, aŕen liburuakin pakean...! Geroztik ez da gixaixoa itxita edukitzea beste sendabiderik? Ez al daiteke besterik ezer egin?

SENDALARIA. Ez, ez; «aizea eta eguzkia...»

MADHAV. Bañan zer zait neri au ta ori ta ura? Eldu ariari. Zuk diozuna gogortxoa da aur gaixoarentzat....; eta gaiñera berak aiñ onez eramaten du egiten zaion guzia.... Biotza erdiratu egiten dit, zuk agindutako sendagaŕi ori artzen aŕi daneko aurpegia ikusteak....

SENDALARIA. Zenbat eta aieru geiago egin eta obe. Txiabana jakintsuak esana da: «Sendagaŕi eta burubide onetan, gutxiena atsegin danak, artzen du obekiena....» Bai, bai; eta banoa oraintxe, lan aundia det eta. *(Ateratzen da).*

BIGAŔEN AGEŔALDIA

MADHAV eta AGUREA *(Agurea sartzen da)*

MADHAV. *(Agureari)*... Bañan or al ago i, zorigaiztoko ori?

AGUREA. Etzak belduŕik izan, gizona, ez dikat ozka egingo ta.

MADHAV. Bai; eta beti auŕen buruak aizez betetzen ari aiz....

AGUREA. I ez aiz auŕa, eta ez dadukak auŕik etxean.... Zer ajola zaik?

MADHAV. Orian beintzat mutilko bat badikat etxean....

AGUREA. Mutilko bat...! Egitan? Zer gertatu dek bada?

MADHAV. Gogoan dek noski, nere emaztea beti, mutilko bat artu bear genula ta zebīlena....

AGUREA. Bai; bañan ori aspaldiko gauza dek.... eta gaiñera ik ez ukan batere atsegin gauza ori...

MADHAV. Ala dek. Ik ez dakik zenbat neke egin bear izan dedan diru apur bat egiteko. Eta nik ainbeste izerdikin auŕeratutakoa jatera beste baten semea sartu bear zitzakidala.... Eziñ nikan nik ori.... Bañan aur ori alatan sartu zaidak biotzean....

AGUREA. Edeŕa egin dikagu! Eta oraiñ aur oŕi atsegin ematen joango zaik guzia.... Eta pozik oŕetan dijoalako...!

MADHAV. Bai, len dirua gaitzbide aundia ukan neretzat eta ongose aundiz egiten nikan lana....! Eta

oraiñ beŕiz, nere aur maite onentzako dana bazekikat, eta poz ematen zidak irabazteak...

AGUREA. Ederki, ederki. Eta nun arkitu ukan aur ori?

MADHAV. Nere andrearen anai baten semea dek. Bere ama aspaldi il ukan, eta auŕeko batean aitarik ere gabe gelditu ukan....

AGUREA. Gixaixoa! Oŕegatixe dik bada nere bear aundiagoa....

MADHAV. Bere loian *(gorpu'zean)* alde onik ez duala eta biziko dan usterik ez duala esaten dik Sendalariak. Egin bear dan gauza bakaŕa, udazkeneko aize ta eguzkitik begiratzea omen dek.... Bañan i galtzagoŕi baiño deabruago aiz!... Eta ez gero or, eta ire adiñean, auŕakiñ ibiĪi.

AGUREA. Udazkeneko aizea eta eguzkia beziñ gaiztoa, alajaiña! Bañan nik bazekikat ere auŕai etxean geldi-geldi egonerazten.... Gaur aŕatsaldean, lana bukatu ondoan ire mutilkoarekin jostatzera etoŕiko nauk.... *(Badijoa)*.

IRUGAŔEN AGEŔALDIA

MADHAV eta AMAL *(Amal zartzen da)*

AMAL. Osaba, aizu, osaba....

MADHAV. Zer nai dek, maite?....

AMAL. Ez al didazu utziko apur bat gelatik ateratzen?

MADHAV. Ez, maitea, ez dek atera bear....

AMAL. Apur-apur bat, besterik ez.... Izebatxorekin joango naiz tīlistak eiotzen ikustera.... Begira kaṫagoŕia exerita, bere buxtana ṫenṫe-ṫenṫe duala; begira nola artzen ditun pikoŕak bere eskuetan eta nola jaten ditun.... Joango al naiz laixterka?

MADHAV. Ez, maitea, ez....

AMAL. Ai ni katagoŕi banintz! Zenbat jostatuko nintzaken!... Aizu, osaba, zergatik ez dezu bada nai ni joaterik?

MADHAV. Sendalariak gaitz egingo dikala esan dualako, maite.

AMAL. Eta rek nola daki ori?

MADHAV. Oiek dituk ateraldiak ditukanak! Jakingo ez dik bada, irakurtzen dituan liburu aundi aiekin?

AMAL. Eta liburuak guzia esaten al due?

MADHAV. Jakiña; ez al ekian?

AMAL. Nik zer dakit bada?... Nik libururik ez det irakurtzen da....

MADHAV. Gizon jakintsuak, guzia dakitenak, bada i bezelaxe egoten dituk, beiñ ere etxetik atera gabe....

AMAL. Egitan? Beiñare ez?...

MADHAV. Nola nai dek bada ateratzea? Jeikitzen diranetik eta etzaten diran arte irakurtzen aŕi dituk, eta ez zedukatek astirik, ezta begirik

ere, beste gauzetarako. I ere, aundia egitean, jakintsua izango aiz. Eta beti, etxean sartuta, liburu aundiak irakurtzen arituko aiz. Eta emendik igarotzen diran guziak iri begira geldituko dituk esanaz: Zenbat dakian oŕek! Aŕitzekoa da gero!

AMAL. Ez, osaba, ez; ezta iñolare; nik ez det jakintsua izan nai; ez det nai, ez det nai...!

MADHAV. Neretzako gauzarik onena jakintsu izatea lukek bada....

AMAL. Nik naiago nuke bada, toki askotara joatea eta ikusi daiteken guzia ikustea.

MADHAV. Ai gixaixoa! Eta zer ikusi nai dek? Zer dek bada aiñ gauza ikusgaŕi ori?

AMAL. Leiotik ageri dan mendi ura ikusi nai det.... Batzuetan bere gaiñetik egaka joateko gogoak ematen dit!

MADHAV. Zeñen ergela aizen! Mendi tontoŕera joan eta igo, besterik ez dala uste al dek? Eta gero zer?... Erotu egin aiz i!... Ez al dek ikusten, mendi ori, dagon bezela, or baldin badago, zerbaiterako dagona? Aruntzago joan al izan ezkero, zertarako bildu or oŕenbeste aŕi? Zertarako egin bear zikaten oŕen gauza aundia? Ea, motel....

AMAL. Iñor ez igarotzeko egin duela uste al dezu zuk, osaba? Nik uste det bada, luŕak, eziñ itzegin dualako, bere besoak goietaraño jaso-

tzen dituala eta beti otska ari zaigula; eta uŕuti bizi diranak eta beti beren leioetan exerita daudenak ikusten due nola ari dan otska.... Bañan jakintsuak noski....

MADHAV. Jakintsuak utskeri oiek gogoan ibiltzea, beste eginbeaŕik ez duela uste al dek? I bezin ero egon bear liketek....

AMAL. Geroztik atzo ezagutu nuan ni beziñ ero dagon bat....

MADHAV. To! Nor? Benetan?

AMAL. ....Ingi makila bat zeraman bizkaŕean, mutuŕean zoŕo batekin, tupi bat eskuan eta oiñetako batzuk zera... baiño zaŕagoak oiñetan... Mendi aldera zijoan ango zelai artatik.... Eta —Nora zoaz?—galdetu nion deadarka.— Etzekiat, etzekiat; edozein tokitara...—erantzun zidan berak.—Zertara zoaz?—galdetu nion nik beŕiz.—Lan biĩa—erantzun zidan. Osaba, eta zuk ez al dezu lan biĩa joan beaŕik?

MADHAV. Jakiña! Jende asko zebiĩek or lan biĩa....

AMAL. Au poza! Nik ere joan bear det norabait lan biĩa....

MADHAV. Eta batere biĩatzen ez badek?... Orduan?...

AMAL. Orduantxe polita! Orduan.... uŕutirago joango nintzake.... Osaba, luzaroan egon nintzan ni atzo gizon ari begira: geldi-geldi zijoan, bere oiñetako zaŕakin.... Lats ondora, pikon-

doa dagon tokira eldu zanean, oiñak garbitzen asi zan; gero bere zoŕotik irin apur bat atera zuan, ur pitin bat bota zion eta jan egin zuan.... Gero bere zoŕoa lotu eta bizkaŕean artu zuan beŕiz ere, geŕipekoa belaunetaraiño goratu eta latsa zear igaro zan.... Esan diot izebari latsera joaten uzteko, arek bezela, nere mugita-iriña jatera....

MADHAV. Eta zer esan dik bada izebak?

AMAL. Sendatu aldi lenengo, eta orduan neronek eramango aut latsera.... esan zidan. Esaidazu, osaba; noiz sendatuko naiz?

MADHAV. Laister, maiT̄ea.

AMAL. Aufa! Orduan osoro sendatzen naizenean, joango naiz, ez da ala?

MADHAV. Nora joan nai dek bada? Esan.

AMAL. Ez dakit. IbiT̄i ta ibiT̄i.. joango naiz... Lats asko igaroko ditut uretan sartuta. Mundu guzia lotan egongo da, ateak itxita, bero aundia egingo dualako... Eta ni joan egingo naiz, ibiT̄i ta ibiT̄i,... eta uŕuti, oso uŕuti, gero ta uŕutiago biT̄atuko det lana.

MADHAV. Ederki; bañan lenengo sendatu egin bear dek, eta gero...

AMAL. Orduan ez dezu naiko ni jakintsua izaterik, ez da ala, osaba?

MADHAV. Eta zer izan naiko ukek bada ik? Ea...!

AMAL. Oraindik ez det asmatu; bañan esango dizut gero.

MADHAV. Begira: ez diat nai ezaguna ez dan iñori deitzerik; ezta ere emendik igarotzen diran guziakin itzketan aritzerik; aditu?

AMAL. Aiñ ederki aritzen naiz itzketan aiekin da...!

MADHAV. Eta eramaten baue?

AMAL. Orixe bai izango nukela atsegiñ! Bañan ez; iñork ere ez nau beiñ ere eramaten; iñori ere ez dio ni emendik ateratzea gogoa ematen.

MADHAV. Lanera joan bear diat, maiṫea. Ez aiz emendik aterako, e?

AMAL. Ez, osaba, ez naiz aterako; bañan utzi zaidazu bide ondoko gela ontan egoten.... *(Madhav badijoa)*

LAUGAŔEN AGEŔALDIA

AMAL eta GAZTAZALEA

GAZTAZALEA. Gazta edeŕa eta gozo-gozoa!

AMAL. Gaztazalea, adizu, gaztazalea! *(Gaztazalea sartzen da).*

GAZTAZALEA. Ik deitzen al didak, mutiko? Gaztatxoak erosi nai al dituk?

AMAL. Nola erosiko ditut bada, dirurik ez det eta?

GAZTAZALEA. Zergatik ots egin didak bada? Ori dek aldia alpeŕik galduarazteko bidea!

AMAL. Al banu, zurekin joango nintzake ni....

GAZTAZALEA. Nerekin?... Zer ari aiz esaten?

AMAL. Bai; goibeltasun aundia sartzen zait an, beran, bide beŕian zure otsa aditzean!...

GAZTAZALEA. *(Gaztamakila luŕean utziaz)* Eta ik zer egiten dek emen?

AMAL. Sendalariak etxetik ez ateratzeko agindu dit, eta ementxe jaŕita egoten naiz egun guzian...

GAZTAZALEA. Gixaixoa? Zer dek bada?

AMAL. Ez dakit; ez naiz jakintsua ta zer dedan ez dakit. Eta zu, gaztazalea, nungoa zera?

GAZTAZALEA. Nere eŕikoa....

AMAL. Zure eŕikoa? Eta uŕuti al dago zure eŕia?

GAZTAZALEA. *Xanli* ibaiaren ondoan, *Pantx-mura* mendiaren azpiko aldean.

AMAL. *Pantx-mura* mendia esan al dezu? *Xanli* ibaia? Bai, bai; ikusi nuen bein zure eŕia; baña ez dakit noiz zan....

GAZTAZALEA. Nere eŕia ikusi deala? Izan al aiz bada i *Pantx-mura* mendian?

AMAL. Ez, enaiz izan; baña zure eŕia ikusi dedala uste det.... Zure eŕia zuaitz aundi ta zar-zar batzuen artean dago. Ez da ala? Bide goŕi baten ondoan. Ez al da egia?...

GAZTAZALEA. Bai, bai; alaxe dek....

AMAL. Eta muñoan beiak dabilz laŕean....

GAZTAZALEA. Eta nere eŕian ez dala beirik... Esan oi det nik...

AMAL. Eta emakumeak, estalki goŕiz jantzita, beren lusuiĪak betetzera ibaira joaten dira eta ego aiek buruan artuta itzultzen dira....

GAZTAZALEA. Alaxe dek. Guziak ibaira joaten dituk ure-

tara; baña ez uste izan estalki goŕia guziak daukatenik jazteko... Bai, i izan aiz noizbait esnezalen eŕian....

AMAL. Gaztazalea, ez naiz bada beiñere izan toki artan. Eta sendalarika ateratzen uzten didanean eramango al nazu zuk?

GAZTAZALEA. Bai, pozik eramango induket, nerekin etoŕi nai baldi bau.

AMAL. Eta erakutsiko al didazu gaztatxoak oiuzkatzen, gaztamakīla bizkaŕean artzen eta uŕutian, oso uŕutian ibiltzen?

GAZTAZALEA. Ixo, ixo.... Eta zertarako saldu bear dituk ik gaztatxoak? Ez, mutiko, ez; ik liburu aundiak irakuŕi bear dituk, jakintsua izateko....

AMAL. Ez, nik ez det beiñere jakintsua izan nai! Nik zu bezelakoa izan nai det.... Bide goŕian dagon eŕi batean, zuaitz zar baten ondoan edukiko ditut nere gastatxoak eta txabolaz txabola ibīliko naiz zaltzen.... Zeñen ederki oiu egiten dezun zuk: Gazta edeŕa ta goxo-goxoa! Oiu ori egiten erakutsiko al didazu?

GAZTAZALEA. Zertarako ikasi nai dek ik nere oiua? Zer gauzak daduzkak?

AMAL. Bai, erakutsi ezaidazu! Atsegin aundia ematen dit zu entzuteak.... Nik ez dakit zuri nola esan, bide biuŕean, zuaitz oien artean, zu entzutean gertatzen zaidana.... An goi-goian, ortziaren azkenean miruen otsak entzuten ditudanean bezelaxe....

GAZTAZALEA. Ederki, ederki; to, artu itzak gaztatxo batzuek; to, artu itzak....

AMAL. Baña ez dadukat dirurik....

GAZTAZALEA. Ez dek diru beaŕik. Oso pozik joango nauk gaztatxo auetxek artzen badizkidak....

AMAL. Adizu, Gaztazalea, asko luzatuarazi al dizut?

GAZTAZALEA. Ez, mutiko, ez. Oso pozik nijoak.... Ara, gaztatxoak salduz zorionekoa izaten erakutsi didak.... *(Badijoa)*

BOSTGAŔEN AGEŔALDIA

AMAL bakaŕik.

AMAL. *(Kantari).*

Gazta edeŕak, goxo-goxoak!
Esnezalen eŕikoak,
Xanli deritzan ibai-ondoko
Pantx-mura mendin egiñak!
Emakumeak egunsentian
Jeizten ditue beiak;
Aŕatsaldean egiten ditue
Gaztaixo guri-guriak.
Gazta edeŕak,
Goxo-goxoak.

Ara an uritzaiña.... Goitik bera dator... *(Uritzaiñari)* Adizu, Uritzaiña, zatorz nerekin itz egitera!

AMAL eta URITZAIÑA

URITZAIÑA. Bañan zer istīlu dek au? Ez al dek nere belduŕik?

AMAL. Zergatik izan bear det bada zure belduŕa?

URITZAIÑA. Eta lotuta eramaten ba-aut?

AMAL. Nora eramango ninduzuke? Uŕutira? Mendi aiek baiño uŕutirago?

URITZAIÑA. Eŕegearengana eramango aut.

AMAL. Eŕegearengana! Bai, bai, eraman nazazu. Bañan Sendalariak ez dit ateratzen uzten.... Ez dadukat beiñ ere iñorekin joaterik.... Egun guzian ementxe egon bear....

URITZAIÑA. Ez al dik uzten Sendalariak? Gixaixoa! Bai itxura txaŕa dekala!... Eta nolako begiazpiak daduzkakan! Nola nabari diran ire eskutxoetako zaiñak!

AMAL. Tantana joko al dezu?

URITZAIÑA. Geroago, oraindik goiz dek.

AMAL. Ori bai dala!... Batzuek goiz dala esaten due; eta beste batzuek beŕiz berandu dala. Bañan

nik uste det, tantana jotzen badezu, ordua izango dala.

URÍTZAIÑA. Ez, mutiko, ez, nik atzezakeat tantana jo, ordua danean baizik.

AMAL. Bai; eta oso atsegin det zure tantanaren otsa. Eguerdian, bazkaldu orduko, nere osaba lanera joaten da; eta nere izeba, Ramaiana liburua irakurtzen ari dala loak artzen du; eta zakuŕa baŕiz, mutuŕa bere buztan biuŕaren tartean sarturik, ormaren itzalean etzalean etzaten da.... Eta orduan aditzen da zure tantan-otsa; don, don, don...! Zertarako jotzen dezu tantana?

URITZAIÑA. Aldia ez dagola geldi, beti joan dijoala adierazteko guziai....

AMAL. Eta nora doa aldia?

URITZAIÑA. Orixe bai ez dakila iñork!

AMAL. Ez al da bada an iñor izan?... Zeñen pozik joango nintzaken aldiarekin, iñork ikusi ez ditun luŕalde aietara!

URITZAIÑA. Guziok joan bearko diagu ara egunen batean.

AMAL. Nik ere bai?

URITZAIÑA. Bai, bai, ik ere bai....

AMAL. Bañan Sendalariak ez dit ateratzen uzten....

URITZAIÑA. Balitekek alakoren batean berak eramatea eskutik....

URITZAIÑA. Bañan badek beste bat ura baiño aundiagoa; eta etoŕi eta atea zabaltzen duana....

AMAL. Bai? Datoŕela bada neregana Sendalari aundi ori eta atera nazala emendik, geiago eziñ egon naiz ta...

URITZAIÑA. Ezak oŕelakorik esan, mutiko...

AMAL. Ez det bada esango. Ementxe egongo naiz, eta ez naiz pitin bat ere mugituko. Bañan zure tantan otsa aditzen dedanean: don, don..., Adizu, Uritzaiña...

URITZAIÑA. Zer nai dek?

AMAL. Zer da gaiñean, egaka, ikuŕiña dadukan, bidearen beste aldeko etxe aundi ori? Zenbat eta zenbat lagun dabiltzen, sartu ta atera...!

URITZAIÑA. A! Idazketxe beŕia dek ori...

AMAL. Idazketxe beŕia? Eta norena da?

URITZAIÑA. Norena izango dek bada? Eŕegearena...

AMAL. Eta Eŕegearen idazkiak oŕera etortzen al dira?

URITZAIÑA. Jakiña! Eta alakoren batean etoŕiko dek iretzat ere eskutitzen bat.

AMAL. Neretzat? Ni oraindik mutil txikia naiz ta...?

URITZAIÑA. Bai; bañan Eŕegeak mutil txikientzako ere egiten zituk idazkiak.

AMAL. Aufa! Eta noiz artuko det nik Eŕegearen idazkia? Nork esan dizu?

URITZAIÑA. Bestela zertarako egin bear zikan Eŕegeak

bere Idazketxea ire leio auŕean, ikuŕiña galu-ŕean duala?

AMAL. Eta nork ekaŕiko dit neıi Eŕegearen idazkia, egiten didanean?

URITZAIÑA. Eŕegeak mandatari asko zituk... Ez al dituk ikusi, kaleak baŕena nola ibiltzen diran, bular gaiñean uŕezko ezautalua erabiltzen duen batzuk?...

AMAL. Eta nora joaten dira?

URITZAIÑA. Alde guzitara...

AMAL. Oi zeñen ederki! Nik ere, aundia egiten naizenean, Eŕegearen idazkizalea izan bear det!

URITZAIÑA. Jajai!... Ori dek ateraldia! Idazkizale! Bañan zer esaten dekan bai al dakik? Ebia ari duala ala bero egiten duala, beartsuai eta aberatsai idazkiak eta eskutitzak banatzen beti ta beti... Ori lan egitea ez dala uste al dek?

AMAL. Bai orixe! Eta zeñen pozik egingo nuken! Zergatik egiten dezu paŕe? Badakit, bai, zuk ere lan asko egiten dezuna!... Eguerdian, alako beroa egiten duanean, eta besterik ezertxo ere aditzen ez danean, zure tantanak: don, don, don,... egi ten du. Eta gauean ere, argia itzaltzen dalako, bat-batetan esnatzen naizenean ere aditzen det ilunpetan, apal-apal : don, don, don,...

URITZAIÑA. Or zetoŕek gure Nagusia; eta banijoak;

bestela irekin izketan aŕapatzen banauk...

AMAL. Nagusia! Nun?

URITZAIÑA. Ara an; begira... Jauzika datoŕela ematen duan, palmazko itzalari aundi ura ez al dek ikusten?

AMAL. Eta Eŕegeak esan al dio emengo Nagusi izateko ala?

URITZAIÑA. Eŕegeak... Ez... ¡Gogaikaŕi bat dek! Besteai asaŕeraztea besterik ez dik nai izaten. Ikusiko bauk... Al duan guzia egiten dik iguingaŕi izateko eta iñork ere eziñ ikusi dik begi onez. Ori nai izaten ditek, ori bezelakoak diranak: guziakin iskanbīlan ibīli... Ea, banijoak. Etoŕiko nauk biar ere goiz-goiz eta esango dikat zer gertatzen dan... *(Badijoa).*

ZAZPIGAŔEN AGEŔALDIA

AMAL bakaŕik

AMAL. Nik Eŕegearen eskutitza egunero artuko banu..! Ementxo leioan irakuŕiko nuke... Bañan oraindik irakurtzen ez dakit eta... Nork irakuŕi naiko ote lizkidake? Baliteke izebak ezagutzea Eŕegearen idazkera, Ramaiana irakurtzen du ta... Eta iñork ezpadaki, ezkutatu egingo ditut, aundia naizenean irakurtzeko. Eta idazkizaleak ni nor naizen ezpadaki? *(Nagusiari)* Nagusi jauna, Nagusi jauna! Gauza bat esan nai nizuke.

AMAL eta NAGUSIA

NAGUSIA. Zer ots dituk oiek? Eta bide beŕian! Zirtzil ori!...

AMAL. Zu zera Nagusia, e? Mundu guziak zure esan egiten du, ez da ala?

NAGUSIA. *(Atsegiñaz)* Ez genukek besterik bear...!

AMAL. Eŕegearen idazkizaleai ere zuk agintzen al diezu?

NAGUSIA. Bai orixe.

AMAL. Idazkizaleai esango al diezu, Amal, emen leioan jaŕita dagon,mutikoa dala?

NAGUSIA. Eta zertarako?

AMAL. Baliteke Eŕegeak neri idaztea ta...

NAGUSIA. Eŕegeak! I ametsetan ari aiz! Ez ukek gutxi nai! Jakiña, arenadiskiderik aundiena i aiz ta, aspaldian ikusi ez auelako, Eŕegea oso atsekabeturik zegok, eta... Bai, ago jaŕita, Eŕegearen eskutitza biar bertan izango dek eta...

AMAL. Nagusi jauna, zergatik itzegiten didazu oŕela? Asaŕetuta al zaude nerekin?

NAGUSIA. Irekin, e?... Geroztik Eŕegeak...! Madhav'ek ez zerabīlek antuste aundirik! Jakiña, irabazia dik ori; eta bere etxean ez dek ia itz egiten, Eŕegeaz eta eraentzaīleaz baizik! Nik baztaŕen baten ikusten badiat, ez dek Eŕegea

izango emango diodana! Eta i, gixaixo ezerez ori, ago lasa, esango ziekat nik iri Eŕegearen eskutitza ekartzeko...

AMAL. Ez, ez; nekegaŕi bazaitzu, ez ekaŕi!

NAGUSIA. Bai, gizona; oraintxe bertan esango ziokat Eŕegeari! Ez estutu; idazkiak ez dik asko luzatuko ta! Eŕegeak, ikasi orduko, moŕoi bat bidaliko dik! Ez genukek besterik bear...! Ori dek ozarkeria! Eŕegeak jakiten badu, emango ziok, bai, Madhavi... *(Badijoa)*.

BEDERATZIGAŔEN AGEŔALDIA

AMAL eta gero SUDHA

AMAL. Nor aiz i, nexka? Nolako otsa ateratzen duen ire besoetako eraztunak! Egon adi apur batean! Nai al den? *(Nexkatobat sartzen da)*.

SUDHA. Eziñ gelditu nauk, ez dikat betarik, berandu dek!

AMAL. Ez al den egon nai? Nik ere ez diñat bada emen egon nai!

SUDHA. Zer dek ik? Goizeko izar bat dirudik.

AMAL. Etzekiñat. Sendalariak etzidan ateratzen uzten...

SUDHA. Ez adi bada atera! Sendalariak esaten dikana egin bear dek, gaiztoa baldin ba-aiz bada,

asaŕetu egingo dek irekin. Bazekikat nik, beti leio ortatik begira aspertuko aizena... Utzi idak pixka bat ixten...

AMAL. Ez, esan itxi... Au beste leiorik atzegon zabalik... Nor aizen esan nai al didan? Ez audala ezagutzen uste diñat...

SUDHA. Ni Sudha nauk.

AMAL. Sudha?, zeiñ Sudha?

SUDHA. Lore saltzaĪearen alaba.

AMAL. Eta ik zer egiten den?

SUDHA. Nik? Loreak bildu saskitxo ontan.

AMAL. Lore biltzen aritzen al aiz? Oŕegatik ditun oŕen alaiak ire oiñak, eta oŕegatik ateratzen diñate oŕen ots pozgaŕia ire besoetako eraztunak... Ni atera baninteke...! Nik bilduko nizkiken lore goienak, ia eziñ ikusi diranak...

SUDHA. Zenbat gauza dakizkidan nik loreenak...!

AMAL. Baita nik ere. Mamu ipuiñeko Txanpaka eta bere zazpi anaiena, guzia zekiñat. Eta une batean ateratzen utziko balidate, baso aundi batera joan laisterka eta galdu egingo ninduken. Eta txori ezti jalea egoten dan toki artan Txanpaka lorea izango ninduken ni. Izan nai al den ik nere aŕeba Parul?

SUDHA. Zeñen zoroa aizen! Nola izangonauk bada ni ire aŕeba Parul, Sudha izanda; eta nere Ama Sasi, lore saltzen ibiltzen dana izan da? Ik baldin baeki nik egunero egin bear izaten

ditudan lore-txortak...! Ai zeñen pozik egongo nintzaken i bezela...!

AMAL. Eta zer egingo uken egun guzian?

SUDHA. Ez nindukek gutxi jostatuko nere andare Benairekin, etaMeni katuarekin, eta... Eta, adizak, oso berandu dek eta nik joan egin bear dikat; bestela saski utsarekin itzuliko nauk, eta...

AMAL. Egon adi beste pixka baten, tira, irekin oso pozik natxegon da.

SUDHA. Ez adi oŕelakoa izan! Ona baldin ba-aiz eta, ni loreakin itzultzekoan, emen ba-ago geldigeldi, geldituko nauk irekin beŕiz ere izketan.

AMAL. Lore bat ekaŕiko al dian?

SUDHA. Eziñ dikat eman. Erosi nai badizkidak...

AMAL. Ordainduko diñat aundia egiten naizenean, arako lats ura baiño aruntzago lan biĪa joan baiño len...

SUDHA. Ondo dek.

AMAL. Adizan, loreak biltzen ditunanean etoŕiko al aiz?

SUDHA. Bai, etoŕiko nauk.

AMAL. Egitan etoŕiko al aiz?

SUDHA. Bai, egitan.

AMAL. Oroituko al aiz ongi? Ni Amal naun. Oroitu ondo, e?...

SUDHA. Ikusiko dek nnla oroituko naizen. *(Badijoa)*.

AMARGAŕEN AGEŕALDIA

AMAL eta MUTILKO batzuek

(Mutilko batzuek sartzen dira)

AMAL. Nora zoazte? Etzaitezte joan; gelditu zaitezte nerekin apur batean...!

MUTILKOAK. Jolasera goazek...

AMAL. Eta zertan ibili bear dezue?

MUTILKOAK. Goldaketan ibiĪi bear diagu.

1° MUTILKOA. *(Egur bat erakutsiaz)* Ara emen goldea.

2ⁿ MUTILKOA. Au ta ni gaituk idiak.

AMAL. Eta egun guzian jolasean ibiltzen al zerate?

MUTILKOAK. Egun guzian!

AMAL. Eta iluntzen duanean ibai baztaŕetik joango zerate, ez dek ala?

MUTILKOAK. Ibai ertz-ertzetik...

AMAL. Eta igaroko al zerate emendik?

MUTILKOAK. Tira, ator gurekin jostatzera, ator!

AMAL. Sendalariak etzidak ateratzen uzten da!...

MUTILKOAK. Eta Sendalariaren esana egiten al dek ik? Tira goazen, berandutzen ari dek eta; tira, ator...

AMAL. Ez, ez. Zergatik etzerate zuek emen, bidean ibiltzen, nik ikusteko?

MUTILKOAK. Eta zertan ibili bear dikagu emen?

AMAL. Nik emango dizkitzuet jostaĪuak. Bai, tira, artu nere jostaĪuak. Ni bakaŕik eziñ ibili nuak

oiekin eta zikintzen ari dituk; zertarako bear zitukat nik?

MULILKOAK. Auek jostalu politak! Itxasontzia! Ara emen Jatairen amona! Zaldizko bat! Eta guziak emango al dizkiguk? Egitan ematen dizkigukala?

AMAL. Bai, bai; artu, zuentzako. Nik ez dikat batere oien beaŕik.

MUTILKOAK. Eta ez al dituk geiago beiñ ere nai izango?

AMAL. Ez, ez, zuentzako.

MUTILKOAK. Bai, eta etxekoak mokoka egiten badikate?

AMAL. Ez, iñortxok ere etzidak neri mokoka egiten. Eta etoŕiko al zerate goizero jolasean emen ibiltzera?... Austen diranean emango dizkizuet nik beste batzuek...

MUTILKOAK. Etoŕiko ez gaituk bada? Gudaketan ibili bear diagu! Ipiñi leŕoka zaldizko auek. Nun ote zegok suizkilo bat? Kañaber au ona dek... Bañan loak artzen al au?

AMAL. Logalea etoŕi zaidala uste diat... Askotan gertatzen zaidak... Beti exerita negok eta nekatu egiten nauk, eta gaiñera bizkaŕean miñ aundia artzen dikat...

MUTILKOAK. Bañan oraindik eguerdia besterik ez dek... ¡Ara tantana; orain ari dek lenengo egunaldikoa jotzen... Ezak lo egin, motel!

AMAL. Don, don, don... Au logurea!

MUTILKOAK. Orduan joan egingo gaituk, eta etoŕiko gaituk biar goizean.

AMAL. Zaudete pitin baten. Zuek beti kalean zabiltzate ta, ez al dituzue Eŕegearen idazkizaleak ezagutzen?

MUTILKOAK. Bai orixe!

AMAL. Nola ditek izena? Nor ta dituk?

MUTILKOAK. Bat Badal, bestea Sarat, bestea... Asko dituk!

AMAL. Eta neretzako idazkiren bat etoŕiko balitz, ezagutuko ote ninduketek?

MUTILKOAK. Ire izena baldin badakar, bai.

AMAL. Biar goizean, onera zatorztenean, ekaŕiko al dezue bat, ni nor naizen ikasi dezan?

MUTILKOAK. Ik ala nai badek...

OIALA

BIGAŔEN EKITALDIA

(Madhav'en etxean)

LENENGO AGEŔALDIA

AMAL *(oatzean)* eta MADHAV

AMAL. Eta leioan jartzen ere ez al dit uzten Sendalariak ?

MADHAV. Badakik, beti or egon aizelako, okeŕago agona.

AMAL. Bai, baliteke gaizkiago egotea; bañan leioan nagonean aiñ ederki egoten naiz !

MADHAV. Ala iruditzen zaik iri; bañan ez, maite. Gero burua ateratzen dek eta bertatik igarotzen diran guziakin izketan asten aiz; eta ik, nere maitea, ez dek oŕelakorik egin bear, gaizkiago ta. Ara nolako itxura txaŕa artu dekan!

AMAL. ... Eta nere Pakiŕa joan egingo da, leioan ikusten az banau...

MADHAV. Ire Pakiŕa? Nor dek ire Pakiŕa?

AMAL. Nere Pakiŕa bada... etortzen da ta, bera ibiĪi

dan luŕalde guzietako gauza asko esaten dizkit. Oso gauza politak esaten dizkit!

MADHAV. Nik ez dikat bada Pakiŕik ezagutzen...

AMAL. Onezkero ez du asko luzatuko... Zoaz eta onera etortzeko esaiozu nerekin izketan aritzera! Bai, esaiozu!

BIGAŔEN AGEŔALDIA

AMAL, MADHAV eta AGUREA *(Pakir jantzita)*

AMAL. Ara, or da! Pakir, Pakir, zatorz onera! Exeri zaitez emen, ere oatze gaiñean!

MADHAV. Zozoa! Pakiŕa al dek bada ori?...

AGUREA. *(Madhavi begiaz keiñu egiñaz)* Ni Pakiŕa nauk!

MADHAV. *(Agureari)* Deabrua aiz i, ikusi ez banu, ez nikan sinistuko...

AMAL. Nun izan zera gaur, Pakiŕa?

AGUREA. Oraintxe bertan etoŕi nauk Txori-ugartetik.

AMAL. Txori-ugartetik?

AGUREA. (*Madhavi*) Bai, Txori-ugartetik. I bezelakoa naizela uste al dek bada? Nere oiñak artu, besterik gabe, noranai joaten nauk ni; eta batere nekerik gabe...

AMAL. *(Txaloka)* Ederki, ederki! Au poza! Ez aztu gero, sendatzen naizenean zurekin eramango ninduzula esan zenidana!

AGUREA. Bai. Eta erakutsiko dikat ere itxasoan, basoetan eta mendietan ibiltzen, iñork ez galerazteko eran.

MADHAV. Ez aiz biuŕi txaŕa!

AGUREA. Amal, itxasoetan, basoetan eta mendietan ezertxok ere ezin atzeratu nauk ni... Bañan Sendalaria eta ire osaba nere auŕez asten badituk, eziñ egin al izango dikat ezer....

AMAL. Ez, osabak ez dio Sendalariari ezer esango, eta ni ez naiz oatzetik batere jeikiko. Eta sendatzen naizen lenengo egunean zurekin joango naiz; eta itxasoan eta basoetan eta mendietan ezertxok ere ez nau gelditueraziko!

MADHAV. Seme, beti emendik joateko asmoetan abil i. Gauza oiek aditzeak zenbateko miña ematen didan baeki!...

AMAL. Adizu, Pakiŕa; nolakoa da Txori-ugartea?

AGUREA. Izan daiteken gauzarik ikusgaŕiena. Iñun diran txori guziak an bizi dituk, eta gizon bat bakaŕik ere ez dek an; an ez dik iñork itzik egiten, eta ez dek iñor ere oiñez ibiltzen; guziak kantari eta egaka ibiltzen dituk.

AMAL. Zeñen gauza polita! Eta an bertan itxasorik bai al da?

AGUREA. Jakiña, ugartea itxasoaren erdian zegok eta.

AMAL. Eta mendi orlegi-orlegiak izango dira bada?

AGUREA. Bai. Ugarte guzia esmaradozko muñoz bete-

rik zegok. Eta eguzkia sartzerakoan, ibaŕa goŕi eta dirdirtsu egiten danean, txoriak beren egal ori-urdiñaz egaka egiñaz kabietara itzultzen dituk.

AMAL. Eta ur-jauzrik bai al da?

AGUREA. Izango ez dek bada? Mendi bakoitzak bere ur-jauzia dik, eta ikatzaŕi urtuzkoak dirala ematen ditek. Ikusiko bauk ura nola jostatzen dan eta, jauzika, itxasoruntz amiltzean, aŕiak nola oiukatzen duten...! Ura bai ez dutela sendalarietatik iñork geldierazten...! Guk egorik etzedukeagu ta, txoriak, gizonai begiratzen dieten bezela, begiratzen zidatekan... Eta etziekan nerekin ezer nai. Bestela kabien artean etxola bat egin eta antxe egongo nindukek bizitza guzian, itxasoko ugiñai begira.

AMAL. Ni txoria banintz...!

AGUREA. Bai, bañan ori ezin zitekek, Amal. Esnezalearekin itzegin dekala ta, aundia izatean, gazta saltzen ibiĪi bear dekala esan zidatek neri; eta txoriak ez ditek gaztarik jaten da... dirubide txaŕak izango ukek...

MADHAV. Bion artean erotu egingo nazue zuek! Eziñ burutu dikat zuekin eta banijoak emendik!

AMAL. Osaba, esnezalea etoŕi al da?

MADHAV. Ez ukan bada nai etortzea? Arek ez dik burea autsiko ire mandatuak Pakiŕari Txori-

ugartera eramaten; bañan iretzat ontzi bat gaztaitxo utzi zituk eta, bere iīoba ezkontzen dala Kanliparara soñujole biīa joan bear dualako, ezin gelditu dala esateko esan zidak.

AMAL. Bere iīobatxoarekin ni ezkondu bear ninduan da!...

AGUREA. Edeŕa egin diagu!

AMAL. Andregai txiki oso polita bilatuko zidala esan zidan; aŕibi bitxizko belaŕitakoekin eta estalki goŕiz jantzia... Eta goizetan bei beltxa arek jetziko zuan eta ontzi beŕian esne bero-beroa, apaŕez beteta berak ekaŕiko zidan edateko. Eta iīuntzean argiarekin ukuīura joango zan... Eto gero andik etoŕi ta nere ondoan jaŕiko zan, Txanpaka ta bere zazpi seniden ipuiña esaten...

AGUREA. Egia! Naizena naizen aŕen, gogoak ematen zidak... Bañan iri zer zaik Esnezalearen iīoba eskontzen dalako? I eskontzekoan Esnezalen iīobak geiegi izango dituk.

MADHAV. Beingoan ixilduko al aiz! Eziñ entzun dikat onez zuen jarduna!

(Badijoa).

IRUGAŕEN AGEŕALDIA

AMAL eta AGUREA

AMAL. Adizu, Pakiŕa, nere osaba joan dan ezkero; ez al da Eŕegearen idazkirik neretzat etaŕi?

AGUREA. Bazekiat idazkia Jauregitik atera dana; bañan oraindik bidean dek.

AMAL. Bidean? Eta nundik etoŕiko da? Zugaitz artean biurka datoŕen bidexka ortatik, ebi ondoan, eguzkia ateratzen danean, basoaren azkeneko bazteŕeraiño ikusten dan, bidexka ortatik etoŕiko al da?

AGUREA. Ortixe etoŕiko dek. Eta nola dakik ori?

AMAL. Bai, guzia dakit.

AGUREA. Ikusten diat; baña nola ikasi dek?

AMAL. Ez dakit bada nola; bañan garbi-garbi ikusten det... Aspalditik ari naiz ikusten... Ez dakit zenbat... Zuk ba al dakizu?... Ikusiko bazenu zeñen garbi ikusten dedan guzia!... Eŕegearen idazkizalea bakaŕik dator aldapa bera, krisalua ezkeŕeko eskuan, eta idazkiz batetako zoŕo aundia bizkaŕean. Goitik bera dator aspaldi ontan, batere galditu gabe, gau ta egun; eta latsak jaiotzen diran tokiraiño eldu danean, lats bazte ŕetik asi da eta, ibiĪi ta ibiĪi, zekale artetik dator... Gero kanaberadian sartu da eta kanabera luze aien arteko

bideziorean ezkutatu da... Gero, kirkirak kantari dabiltzen, zelai aundi artan sartu da... Begira; ez dator iñor, ura besterik; bakar-bakarik eparak dabilz, lokatzetan sartuta, aztarika, buztanai eregiñaz... Badator, gero ta gertuago, gero ta ger tuago... Au poza!

AGUREA. Nere begiak ez ditek gauza aundirik ikusten; bañan aiñ ederki esaten dituk, eta gauza guziak, aura nintzanean bezelaxe, ikusten zitukat.

AMAL. Adizu, Pakira, ezagutzen al dezu zuk Idazketze au egin duan Eregea?

AGUREA. Bai orixe; egunero joaten berari doaria eskatzera.

AMAL. Zeñen ederki! Sendatzen naizenean, nik ere joan bear det doaria eskatzera, ez da ala?

AGUREA. Ik ez dek eskatu bearik izango, mutilko; berak emango dik eskatu gabe...

AMAL. Ez, ez; ni bere atarira joango naiz eta—Gora Eregea!—ots egingo det; eta tuntunaren otsera dantza egiñaz eskatuko kiot doaria. Ez al zaitzu ondo iruditzen?

AGUREA. Bai orixe, oso ederki egingo ukek! Eta elkarekin joango bagiña, puska polita izango lukek neretzako ere. Eta eskatu bear diok?

AMAL. Zure idazkizale agin nazazu,—esango diot —nere krisaluarekin, atez ate ibiltzeko idaz-

kiak banatzen. Ez nazazu egun guzian etxean eduki!

AGUREA. Zergatik ago ba i etxean oŕen asperturik?

AMAL. Ez, ez nago asperturik! Lenengotan, emen itxi nindutenean, egunak oso luzeak iruditzen zitzazkidan. Bañan Eŕegearen Idazketxea auŕean egin duten ezkero, geroz ta pozikago nago nere gelan; eta gaiñera, badakit egunen batean idazki bat izan bear dedana... Bai, etzait batere axolarik emen egoteagatik; bakar-bakaŕik egonda ere! Adizu, eta jakingo al det nik Eŕegearen idazkia irakurtzen?

AGUREA. Eta zer? Ez al dek aski ikazkiak ire izena ekartzea?

LAUGAŔEN AGEŔALDIA

LENGOAK eta MADHAV

MADHAV. *(Sartuaz)* Edeŕa egin dezue bion artean!

AGUREA. Zer dezu bada? Zer gertatu da?

MADHAV. Mundu guzia marmaŕean ari dala; Eŕegeak auŕeko bere Idazketxe ori zuie bioi idazkiak egin eta bidaltzen aritzeko dala esanaz.

AGUREA. Bai, ta zer?

MADHAV. Pantxana nagusiak Eŕegeari azpitik esanerazi diola...

AGUREA. Ez al zekikagu bada guziok Eŕegeak gertatzen dan guzia jakiten duana?

MADHAV. Eta zergatik ez dezue bada begirakun geixeago? Ez zenukete Eŕegearen izena aotan alpeŕik erabiĩi bear! Ondatu bear na zue zuen goraberaekin!

AMAL. Pakiŕa, Pakiŕa. asaŕetu egingo al da Eŕegea?

AGUREA. Zer asaŕetu bear dik! Ez mutilko; i bezelako mutilko batekin eta ni bezelako Pakir batekin...! Ea beregana joan eta edeŕak esaten dizkiodan...!

AMAL Adizu, Pakiŕa; gaur goizetik asita, lañea edo dadukat begien aurean... Gauza guziak osoro oiezak iruditzen zazkit... Ez dadukat itzegiteko gogorik... Geldi egon baninteke... Noiz etoŕiko ote da Eŕegearen idazkia? Gela au bat-batetan erori ta paŕukatzea ta... naiko nuke.

AGUREA. *(Aize-ostoaz Amali aize emanaz)* Gaur etoŕiko dek noskiidazkia...

BOSTGAŔEN AGEŔALDIA

LENGOAK eta SENDALARIA

SENDALARIA. *(Sartuaz)* Nola ago bada gaur?

AMAL. Oso ederki, Sendalari jauna; ez dadukat batere oñazerik.

SENDALARIA. *(Madhavi berezi)* Iŕi ori ez det batere atsegiñ. Ezaupide txaŕa da oŕen ondo egotea. Txakaradanek dio...

MADHAV. Ondo da; bañan utzi zazu Txakarakan ori alde batera; nik auŕa nola dagon jakin nai det!

SENDALARIA. Luzaroan ez duala iraungo uste det... Esan nizun lenago ere... Beŕiz ere oztu egin da...

MADHAV. Ez, auŕa ez da bada atera batere... Eta leioak ere itxita egon dira.

SENDALARIA. Nik ez dakit bada gaur aizeak zer duan! N^{i} sartu naizenean, aize-laister aundia zan ate nagusian. Eta ori ez da ona... Atea giltzaz ixtea izango da onena. Bi edo iru egunez etxean iñor ez artzea ez zaitzula axola izango uste det; eta norbaitek auŕa ikusi nai badu, sartu dedīla ezkutuko atetik... Eta leio ori ere itxi egin bear litzake... Īlunabaŕeko eguzkiaren leiñu ruak, eŕiari loa galerazteko, bestetarako ez dira.

DADHAV. ...Begiak itxi ditu. Loak artu ku noski. Zer aurpegia dadukan! Ai, Sendalari jauna, nerea balitz bezelaxe ekaŕi nuan, eta, aiñ maite izanik, galdu egin bear betiko...!

SENDALARIA. ...Nor, nor da ori?... Toki guzietan sartu bear duala Nagusi oŕek! Ori gizona!... Ea, nik joan egin bear det... *(Madhavi)* Obelitzake guzia ondo itxita dagon ala ez, biok

ikustea... Etxera eldu orduko bidaliko det sendagaŕi ortatik ugari; ea, oŕela zerbait egiten ote degun... Alarik ere, nik uste...

(Madhav eta Sendalaria ateratzen dira).

SEIGAŔEN AGEŔALDIA

AMAL, AGUREA eta NAGUSIA

NAGUSIA. *(Sartuaz)* Kaixo, mutiko!

AGUREA. *(Bat-batetan jeikitzen dalarik)* Ago ixilik!

AMAL. Ez da axola, Pakiŕa: ez negon lotan! Guzia entzun det... Baita uŕutiko ots batzuek ere... Begira nere aita eta nere ama... Nere ondoan jaŕita daude eta izketan ari zazkit...

ZAZPIGAŔEN AGEŔALDIA

LENGOAK eta MADHAV

NAGUSIA. Madhav, gizon andi-mandien artean abiĪela aditu dikat.

MADHAV. Ez aditez beŕiketan ibiĪli, Nagusi. Badakiku zoritxaŕekoak gerana...

NAGUSIA. Bai; bañan ire auŕa Eŕegearen idazki zai zegok...

MADHAV. Utzi zazugixaixo ori pakean, xoxoa da ta...

NAGUSIA, Ez, ez. Zergatik ez dik bada artu bear? Nun biĪatuko dik bada Eŕegeak lagun oberik? Zerbaitegatik egin dik bere Idazketxea ire leio auŕean! Mutilko, ara emen Eŕegearen idazki bat iretzako!...

AMAL. *(Lazkuraz jeikitzen dalarik)* Nun? Egia al da?

NAGUSIA Gezuŕa izango dek!... Aren adixkiderik onena i aiz ta... Begira... *(Paper txuri bat erakutsiaz)* Ar zak! Jajajai!...

AMAL. Ez neri iŕirik egin!... Pakiŕo, esan zuk: egia al da?

AGUREA. Bai, maitea. Ori dek Eŕegearen idazkia!

AMAL. Nik ez det bada zzer ikusten!... Guzia zurizuria iruditzen zait! Nagusi jauna, zer dio idazkiak?

NAGUSIA. Aditu: «Bereala etoŕiko nauk i ikustera. Gerturik eduki, labean egindako, ugolua; jauregiko janariak asperturik negok eta...» Jajajai!...

MADHAV. Nagusi; *(aŕenka)* ez zaitez geiago oŕela jolasean ibiĪi!

AGUREA. Jolasa, e? Esazak ori ere!

MADHAV. I ere erotu egin al aiz?...

AGUREA. Erotu? Bai bada, erotu egin nauk! Eta emen garbi asko esaten dik Eŕegea bere Sendalariarekin Amal ikustera etoŕiko dala...

AMAL. Pakiŕa, Pakiŕa, adizu!... Eŕegearen adaŕa!... Zaude ixilik!...

NAGUSIA. Jajajai!... Oraindik burua apur bat geixeago galdu bearko dekala uste dikat, Eŕegearen adaŕa entzuteko...

AMAI.. Nagusi jauna, nerekin asaŕe zeundela ta batere ez ninduzula maite uste nuan nik... Eta nola bururatu bear zitzaidan. Eŕegearen idazkia zuk ekaŕi bear zenidana? Utzi zaidazu oiñetako autsa kentzen!...

NAGUSIA. Aur au oso agurtia da. Xoxomaŕa da; bañan ez da biotz gaiztokoa...

AMAL. Laugaŕen egunaldia dala uste det. Ara tantana: don, don, don... don, don, din... Īlunabaŕeko izaŕa atera al da? Ez dakit zer dedan; ez det ikusten...

AGUREA. Ez,mutiko; guzia itxita zegok eta. Zabaltzera nijoak... *(Atetik ots egiten dute).*

MADHAV. Otska ori dira! Nor ote da? Au lana! Garai ontan otska!... *(Atetik ots batek:* Zabaldu!).

MADHAV. Aditu al dezu, Nagusi? Ea lapuŕak ote diran!...

NAGUSIA. *(Atekoai)* Nor da? Pantxanan Nagusiak galdetzen du! Ausartzen al zerate...? *(Baŕengoai)* Ara, ikusten dezue: ixildu da otsa... Pantxananen otsak ez dezakela ezer! ¡Ea, datoŕela lapur kementsu ori!...

MADHAV. *(Belduŕez, leiotik begiraturik)* Bai, ixilduko etziran bada, atea luŕera bota dute ta?...

ZORTZIGAŔEN AGEŔALDIA

LENGOAK eta EŔEGEAREN MANDATARIA

EŔEGEAREN M. *(Sartuaz)* Gure Eŕege aundia gaur gauean etoŕiko da onera!

NAGUSIA. Ai ene Jainkoa!

AMAL. Mandataria, Mandataria, zer ordutan elduko da?

EŔEGEAREN M. Bigaŕen gualdian.

AMAL. Nere adixkide uritzaiñak uriko atean tantana: din, don, din... din, don, din... jotzen duanean?

EŔEGEAREN M. Bai, orduantxe. Eta Eŕegeak bere sendalaririk jakintsuena bidaliko du auŕetik, bere adixkide txikia sendatu dezan.

BEDERATZIGAŔEN AGEŔALDIA

LENGOAK eta EŔEGEAREN SENDALARIA

EŔEGEAREN S. *(Sartuaz)* Zer da au? Zertako dago guzia itxita? Zabal egin... (*Amal ikutuaz)* Zer diok, bada, maite?

AMAL. Oso ederki nago, oso ederki; ez dadukat batere oñazerik. Ai zeñen atsegin dedan gala

arén zabalik eta ozkar! Oraintxe, bai, ikusten ditudala ilunpetan izarak dardari!...

ERREGEAREN S. Gauerdi aldera, Erregea datorrenean, jeikitzeko gauza izango aizela uste al dek?

AMAL. Bai orixe! Gogo aundia det jeikitzeko! Artizara erakusteko esan bear diot Erregeari... Askotan ikusi bide det; bañan ez dakit zeiñ dan...

ERREGEAREN S. Erregeak guzia erakutsiko dik. *(Madhavi)* Lorez apainduko al dezue Erregearentzako gela? *(Nagusia erakutsiaz)* Eta ori dijoala emendik...

AMAL. Ez, utziozu, Sendalari jauna; nere adixkidea da! Berak ekarri zidan Erregearen idazkia...

ERREGEAREN S. Ondo dek, mutiko; ire adiskidea baldin badek, gelditu dedila.

MADHAV. *(Amali belarira itzegiñaz)* Amal, ara zeiñen maite auan Erregeak eta bera zetorrek i ikustera... Eskatu zaiok zerbait, zeñen zoritxarekoak geran badakik eta...

AMAL. Bai, bai, osaba; asmaturik dadukat.

MADHAV. Eta zee eskatu bear diok?

AMAL. Ni bere idazkizale egiteko, alde guzietan, atez ate, idizkiak banatzen ibiltzeko.

MADHAV. *(Bekokia joaz)* Erukarriak gu!... Ori eskatu bear al diok bada?

AMAL. Osaba; eta zer emango diogu Erregeari, etortzen danean?

EŕEGEAREN M. Labean egindako ugolua gertutzeko esan du.

AMAL. Labeko ugolua! Nagusi jauna, zuk egia esan zenun! Zuk esan zenun lenengo! Guzia zenekien zuk, guzia...

NAGUSIA. *(Mandatariari)* Gaztigatu izan bazenu, nik egingo nituan, Eŕegeari dagozkion bezelako gerkunak!...

EŕEGEAREN S. Ez da beaŕezkoa... Eta oraiñ ixilik guziok, lokartzen ari da ta... Ni bere ondoan egongo naiz... Ari da lokartzen... Itzali argia, izaŕen isla bakaŕik sartu dediĪa... Egon ixilik, loak artu du ta...

MADHAV. *(Agureari)* Zer egiten dek or, aŕizko gizirudi bat bezela zuti, eskuak tolestaturik? Oso laŕi negok! Au guzia ona dala uste al dek ik? Gela au aiñ iĪun! Ez dikat uste izaŕen argiak auŕari batere onik egingo dionik...

AGUREA. Ago ixilik, sinesgogor ori!

AMARGAŔEN AGEŔALDIA

LENGOAK eta SUDHA

SUDHA. *(Sartzean)* Amal!

EŕEGEAREN S. Lo zegon!

SUDHA. Lore batzuek nekarzkion da... Utziko al didazu bere eskuetan ipintzen?

INSTITUCION - Caja de Ahorros de Murcia OBRA SOCIAL

ERREGEAREN S. Bai, ipiñi itzakion.

SUDHA. Noiz esnatuko da ?

ERREGEAREN S. Erregea etorri ta ots egiten dionean.

SUDHA. Nere ordez gauza bat esango al diozu belarira ?

ERREGEAREN S. Zer nai den bada esatea ?

SUDHA. Sudhak ez duala aztu esan bear diozu...

AZKENA

Publicaciones de Euskaltzaleak

TEATRO

Bost-Urtian
Toribio de Alzaga.

Ostegun-Gizena
Antonio de Labayen.

Sorgiñak
Barbier-Manuel de Lecuona.

Egiazko Jainkoa.—X.

«Amal»
Rabindranath Tagore.

POESIA

Poesías Vascas
I.—Certamen de Rentería. 1930.

Poesías Vascas
II.—Certamen de Tolosa. 1931.

Poesías Vascas
III.—Certamen de Hernani. 1932.

Poesías Vascas
IV.—Certamen de Urretxua. 1933.
(En prensa)

ACCION EUSKERICA

La Muerte del Euskera
J. de Aitzol.

Lucha de idiomas
El problema escolar bilingüe en Euzkadi.

Itz - Lauz
Javier Lizardi.

SANEURÍA: 1,25